



EKONOMIA-FINANTZAZKO TXOSTENA

Udal honetako behin-behingo Kontuhartzaileak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 6.3.e) artikuluari jarraiki, eta aipatutako ekitaldiari buruz aztertzen ari garen Aurrekontuaren inguruan, ondoko txosten hau egin du

TXOSTENA

Aurrekontuetan baldintza bat da, 21/2003 Foru Aginduaren 14.6 artikuluan jasotakoa, hau da, *Aurrekontu orokorreko aurrekontu bakoitza hasierako mentsik gabe onetsi behar da. Nolanahi ere, eragiketa arrunten ziozko sarrerak gutxienez gastu arruntak eta zorren amortizazio-gastuak bat eginez sortzen den kopuruaren beste izan behar dira.*

2019rako Udalaren Aurrekontuko Proiektua OREKATUTA aurkezten da, 24.266.395,00 euroko kopuruarekin. Bere sarrera eta gastuen kapitulukako laburpena honekin batera doan eranskinean aipatzen dena da.

- + Sarrera arruntak
- Gastu arruntak
- Maileguen amortizazioak
- =Emitza positiboa da edo zero aurrekontu bakoitzean.**

DIRU SARRERAK

Diru-sarreraren kopuruak zehazteko erabili den irizpidea izan da:

- 1) Orokorrean aurreko ekitaldiko aurreikuspenari urritik urrira urtearteko KPIa igotzea %2,3.
- 2) Igoera jaso duten partida edo diru izendapenak aurrekontu proposamenean jasotakoak dira. Azpimarragarria da Zerbitzu kulturalak partidak (0101.310.010.00.16) 81.000 €tan igo dela 2018 urteko hasierako aurrekontuarekin konparatzen badugu. Partida honetan, 2018 urtean izandako onartutako eskubide garbiak kontutan izan dira, hauei KPIa gehitu zaie eta zinema berriaren erabilpenagatik espero diren dirusarrerak gehitu dira (50.000,00 €).
- 3) Kapital sarreretan adierazi behar da ez dagoela zehaztuta kapital sarrerak zein inbertsioak finantzatuko dituzten, diru-laguntza deialdiak egin gabe daudelako, beraz aurreikuspenak dira.



Ikusita hainbat inbertsio finantzatzeko, bermatu edo ekarpen konpromisorik gabeko kapital sarrerak aurreikusi direla, ohartarazten dut sarrerak bermatu arte inbertsioa ez egitea, beti ere gastu eta diru-sarreraren oreka mantentzeko.

4) 2019an gauzatu behar diren gastuak finantzatzeko 1.000.000,00 euroko mailegu bat kontratatzea aurreikusi da, aurreikusitako amortizazio kopuruaren antzekoa (1.035.000,00 €)

GASTUAK

Aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko kredituak kontsignatu behar dira, hala nola Udalari eska diezazkioten zorrak, finantza zama; derrigorrez eman beharreko zerbitzuei dagozkienak, pertsonal gastuak, bulego materiala; Erakundeari ezarritako zerbitzuei aurre egitekoak, lehenago hitzartutako konpromiso eta hitzarmenen ondoriozkoak, edota aurreikusita dauden obra edota instalazioak aurrera eramateak dakartzanak.

Gastuak, orokorrean, departamendu bakoitzak erabakitakoak dira, ondorioz ulertzen dut udalak dituen konpromisoak jasotzen dituztela.

Udalaren Plan Estrategiko berria osatu da eta Bergarako Udalak banatu asmo dituen diru laguntzak jaso dira. Bertan adierazten diren diru-laguntzak departamentu bakoitzak proposatutakoak dira.

Inbertsio partidak, partida horietan gauzatuko diren obra, lan, proiektu eta abar jasotzen dituzte baina gaurko egunez, **ez dago inbertsio ekintza bakoitzaren zehaztapenik**. Diru sarreretan ere partidak jasotzen dira, baina zer finantzatuko duen diru sarrera bakoitza ez dago zehaztuta.

Bai Udalaren eta bai Autonomiadun Erakundeen aurrekontuetako aurreikuspenak ikusirik, eta 2018 urteko aurrekontuak gaur egunera arte izandako exekuzioa aintzat hartuta, badirudi partidetan aurreikusi den kontsignazioa nahikoa izango dela ekitaldian zehar sortu daitezkeen beharrezkoen aurre egiteko.

Autonomiadun Erakundeen Aurrekontuak egiterakoan, Udaletxean sarrera eta gastuak aztertzerakoan jarraitu diren irizpide berdinak jarraitu dira.

Aurrekontu bakoitzean aurreikusten diren sarrerak nahikoak dira hauetariko bakoitzean kontsignatu diren gastuei aurre egiteko. Beraz, ondorioztatzen da Aurrekontu Orokorra osatzen duten Aurrekontuek ez dutela hasierako defizitik.

Udalaren Aurrekontuan, sarrera arruntak nahikotzat hartzen dira gastu arruntei eta kitatu gabeko maileguen amortizazioei aurre egiteko, aurrekontuaren aurrezki garbia positiboa

da.

AURREZKI GARBIA			
Sarrerak 1-5			22.098.268,00
Gastuak 1,2,4			18.417.092,00
Aurrezki gordina			3.681.176,00
Gastu finantziarioak (kap. 3 eta 9)			1.150.800,00
Aurrezki garbia			2.530.376,00

Aurrezki garbiak, zama finantzarioa ordaindu ondoren gelditzen den aurrezki gordinaren zatia adierazten du. Udalak, nor bere baliabideekin, inbertsioak finantzatzeko duen ahalmenaren berri ematen digu. Aurrezki garbiak positiboa izan behar du beti; bestela, Diruzaintza-Gerakina negatiboa izango litzateke, edota kapital-sarreraren bitartez ariko lirateke gastu arruntak finantzatzen.

UDALAREN LURZORU-ONDAREA

2019rako proposatutako aurrekontuan lurzoru-ondareari buruzkoak dira:

- Diru sarrerak edo iturriak

609.010.00.01	6	Lur salmentak	1,00
614.010.00.01	6	Beste salmentak	79.700,00
650.010.00.01	6	Hiritartze kuotak	0,00
651.010.00.01	6	Hirigintza Probetxamenduak	15.357,00
Sarreretako 1 kap	1	1. kapituluaren %10a	477.630,80
Sarreretako 2 kap	2	2. kapituluaren %10a	74.700,00
		Guztira	647.388,80

- Diru sarrera horiekin finantzatu daitezkeen gastuak

hainbat	601 620 622	Inbertsio errealak lurzorua	1.457.001,00
Hainbat	7	Kapital transferentziak	457.925,00
Sarrerak 7	7	- Kapital transferentziak	-785.673,00



Sarrerak 9	9	Finantza pasiboak	-1.000.000,00
		Guztira	129.253,00

EAEko 2/2006 Legeak araututakoa betetzen da.

GIPUZKOAKO TOKI ENTITATEEK JARRAITU BEHARREKO ERREGELAK 2018RAKO AURREKONTUAK PRESTATU, ONARTU ETA GAUZATZEKO ONARTZEN DITUEN JARRAIBIDEARI JARRAITUZ

a) Aurrekontu egonkortasunaren helburua. Defizitak zero izatea.

Legeak udalei ezarritako helburua, defizita zero izatea da.

Egonkortasun helburua neurtzeko 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da.

Kalkulua eginda, aurrekontu proposamen horretan **BETETZEN** da betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua.

AURREKONTU EGONKORTASUNA			
	Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)		23.227.794,00
	Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)		23.192.794,00
	SEC dokintzak		0,00
	Finantzaketa ahalmena/premia		35.000,00

b) Zor publikoaren helburua.

Legeak ezarritako helburua da 2020 urterako zor bizia iazko sarrera arrunten %70a edo hori baino baxuagoa izatea.

Finantzen iraunkortasuna neurtzeko, Bergarako Udalaren egungo zor biziari erantsi zaizkio 2019 urtean kontratu asmo den mailegua eta aurreikusitako amortizazioak kendu.

Kalkulua eginda aurrekontu proposamen horretan **BETETZEN** da finantzen iraunkortasuna helburua



ZOR BIZIA

Epe luzeko zor bizia (2018/12/31)	7.961.442,93
Epe laburreko zor bizia (2018/12/31)	0,00
Zor bizia 2018/12/31	7.961.442,93
2019 urtean aurreikusten den mailegua:	1.000.000,00
2019 urtean amortizatuko dena	1.035.000,00
	7.926.442,93
2017ko eskubide likidatuak (1- 5 kap.)	24.417.348,34
Zor biziaren %a	32%

c) Gastuaren araua.

Legeak ezarritako helburua da gastu konputagarriaren igoera %2,7 baino baxuagoa izatea.

Gastu arauaren kalkulua egiteko 2018 eta 2019 urteko aurrekontu bateratuen gastu ez finantzarioak hartu dira eta hauei interesak eta administrazio publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastuak kendu, horrela gastu konputagarria iristeko.

Gastu konputagarri horretan ez da igoerarik egon eta beraz, egindako aurrekontu proposamenak betetzen du gastu araua.

Ondorioz, likidazioan egoeran, egonkortasun helburua ez bada betetzen edo berdin, beste helburuen bat ez bada betetzen, Bergarako Udala behartuta egongo da plan ekonomiko-finantzario bat onartzera.

Plan horrek ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua, gastu araua eta 2020 urterako zor bizia sarrera arrunten %70 edo txikiagoa izatea.

Plan hori Udalbatzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik eta bi hilabeteko epean, aurkezten denetik, onartu. Plana martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik hasita.

Gure kasuan, gastu araua ere **BETETZEN** da, ondoren ikusi daitekeen taularen arabera:

GASTU ARAUA					
				2019	2018
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)				23.192.794,00	25.148.392,61
Zorraren interesak				115.800,00	115.800,00
SEC doikuntzak					0,00
Admin. Publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua				1.621.962,00	1.381.300,33
Gastu konputagarria				21.455.032,00	23.651.292,28
Gastuaren hazkundearen muga:				2,70%	
Araudiaren aldaketen eragina (ordenantzak)				240.406,23	
Gastu muga:				24.049.470,94	
Gastuaren araua bete al da?				2.567.918,94	BAI

2019 EKITALDIA

BERGARAKO UDALA

GASTUAK 2019				
Kap.deskr	Kap.	2018 Hasi.aurr	2019	Dif
Pertsonal gastuak	1	7.865.705,06	8.086.379,00	2,81%
Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	2	7.812.087,88	8.246.813,00	5,56%
Finantza gastuak	3	115.800,00	115.800,00	0,00%
Transferentzia arruntak	4	2.057.156,63	2.083.900,00	-1,30%
Kreditu globala	5	0,00	264.124,00	
Inbertsio errealak	6	5.230.724,00	3.689.058,00	-29,47%
Kapital transferentziak	7	710.565,13	457.925,00	-35,55%
Finantza aktiboak	8	30.001,00	30.001,00	0,00%
Finantza pasiboak	9	1.035.000,00	1.035.000,00	0,00%
	Guztira	24.857.039,70	24.009.000,00	

SARRERAK 2019				
Kap.deskr	Kap.	2018 Hasi.aurr	2019	Dif
Zuzeneko zergak	1	4.707.718,00	4.776.308,00	1,46%
Zeharkako zergak	2	549.000,00	747.000,00	36,07%
Tasak eta bestelako zergak	3	5.177.333,70	5.615.961,00	8,47%
Transferentzia arruntak	4	10.370.259,00	10.944.199,00	5,53%
Ondare sarrerak	5	39.464,00	14.800,00	-62,50%
Inbertsio errealak besterang.eta hirigintzatik ondoriozt.beste sarrera batzuk	6	170.502,00	95.058,00	-44,25%
Kapital transferentziak	7	1.657.762,00	785.673,00	-52,61%
Finantza aktiboak	8	30.001,00	30.001,00	-0,00%
Finantza pasiboak	9	2.155.000,00	1.000.000,00	-53,60%
	Guztira	24.857.039,70	24.009.000,00	



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

GASTUAK 2019	
1. KAPITULUA: Pertsonalari ordainketak	368.600,00
2. KAPITULUA: Ondasun arrunt eta zerbitzuak	19.286,00
4. KAPITULUA: Transferentzia arruntak	5.000,00
6. KAPITULUA: Inbertsioak	4.500,00
8. KAPITULUA: Gastu finantza-aktiboen aldaketa	8.600,00
GASTUAK GUZTIRA	405.986,00

SARRERAK 2019	
3. KAPITULUA: Matrikula sarrera eta beste	26.300,00
4. KAPITULUA: Transferentzia arruntak	366.581,00
5. KAPITULUA: Gordailuen interesak	5,00
7. KAPITULUA: Kapital transferentzia	4.500,00
8. KAPITULUA: Sarrera finantza-aktiboen aldaketa	8.600,00
SARRERAK GUZTIRA	405.986,00

MIZPIRUALDE EGOITZA

GASTUAK 2019	
2. KAPITULUA: Ondasun arrunt eta zerbitzuak	13.500,00
GASTUAK GUZTIRA	13.500,00

SARRERAK 2019	
4. KAPITULUA: Transferentzia arruntak	13.500,00
SARRERAK GUZTIRA	13.500,00



AURREKONTU BATERATUA

GASTUAK 2019	
1. KAPITULUA: Pertsonal gastuak	8.454.979,00
2. KAPITULUA: Ondasun arrunt eta zerbitzuak	8.279.599,00
3. KAPITULUA: Finantza gastuak	115.800,00
4. KAPITULUA: Transferentzia arruntak	1.931.309,00
5. KAPITULUA: Kreditu globala	264.124,00
6. KAPITULUA: Inbertsioak	3.693.558,00
7. KAPITULUA: Kapital transferentziak	453.425,00
8. KAPITULUA: Finantza aktiboak	38.601,00
9. KAPITULUA: Finantza pasiboak	1.035.000,00
GASTUAK GUZTIRA	24.266.395,00

SARRERAK 2019	
1. KAPITULUA: Zuzeneko zergak	4.776.308,00
2. KAPITULUA: Zeharkako zergak	747.000,00
3. KAPITULUA: Tasak eta bestelako zergak	5.642.261,00
4. KAPITULUA: Transferentzia arruntak	11.166.689,00
5. KAPITULUA: Ondare sarrerak	14.805,00
6. KAPITULUA: Inbertsio errealak besterang.eta hirigintzatik ondoriozt.beste sarrera batzuk	95.058,00
7. KAPITULUA: Kapital transferentziak	785.673,00
8. KAPITULUA: Finantza aktiboak	38.601,00
9. KAPITULUA: Finantza pasiboak	1.000.000,00
GASTUAK GUZTIRA	24.266.395,00

Bergaran, 2018ko abenduaren 13a